



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko abuztuaren 6a

65. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, ikus-entzunezko produkzioarako laguntzen banaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, 2008an MECSA enpresari AHTari buruz enkargatu zitzaion txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren borondatezko Etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoaren 8 eta 9. artikulua betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, frantseseko atal elebidunetako ikasleek *Diplôme d'Études en Langue Française* azterketetara aurkezteko aukera izateko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Caparrosoko granja baten ingurumen baimen integratuaren gaineko epaiaren eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Iruñeko Nabarrera kaleko Rozalejoko Markesa jauregiaren gaur egungo egoerari, aurreikusi diren jarduketari eta jauregi horren etorkizunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, administrazio kontseiluetara joateagatik ordainsariak edo dietak kobratzen dituzten Gobernuako kide eta zuzendaritza-karguei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, goi karguek sozietate publikoen administrazio kontseiluetan parte hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Arbizuko ikastolan “Euskal Herriaren” eta “Palestinaren” arteko adiskidetze-egun bat ospatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, eraikin historiko-artistikoak zaharberritzeko eta babesteko inbertsioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarraren bilkuretara joateagatik kobratutako ordainsarien tratamendu fiskalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Lergako lurzati-berrantolamenduan egiten ari diren obretarako materialaz hornitzeko harrobiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak bere enpresa publikoen bitartez Esako arrain-haztegian duen partaidetzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).

- Galdera, “0-3 urteko haurrak eskolatzeko hitzarmenak udalekin (Ezkaroze, Lerin, San Adrián, Altsasu eta Arbizu)” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, 1512-2012 mendeurrena ospatzeko programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Valtierako San José Egoitzako postuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak informazioa ukatzen dien eskatzen duten parlamentu-taldeei. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, jakiteko Larrialdietarako Landa Zerbitzuak berrikusi eta aldatzeko asmorik ba ote den. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Sodenaren eta Europako Inbertsio Bankuaren arteko hitzarmena eta entitate finantzarioekin egin beharreko hitzarmenak sinatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Galdera, Sodenak Parquenas S.A. sozietateari (Senda Viva) eginiko kapital-ekarpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, ikus-entzunezko produkzioarako laguntzen banaketari buruzkoa.*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Nekane Pérez Irazabal andreak galdera egin du ikus-entzunezko produkzioarako laguntzen banaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko azaroaren 11ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak ikus-entzutezko produkzioari ematen zaizkien laguntzen banaketari buruz idatziz erantzuteko

egindako galderari (8-11/PES-00216) hau erantzun dio Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Ikus-entzutezko produkzioarentzako laguntzak banatzeko irizpideak horretarako deialdia egiten denean finkatuko dira, Nafarroako Parlamentuak 2012. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorra onartzen dituenean, haietan zehaztuko baita laguntza horien behin betiko zenbatekoa, horretarako aurkeztu diren zuzenketa partzialak erabaki ondoren.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko abenduaren 1ean.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, 2008an MECSA enpresari AHTari buruz enkargatu zitzaion txostenari buruzkoa.*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Koldo Amezketa Díaz jaunak galdera egin du 2008an MECSA enpresari AHTari buruz enkargatu zitzaion txostenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko azaroaren 11ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díaz jaunak 2008an MECSA enpresari AHTari buruz eskatu zitzaion txostenaz Parlamentuan egindako galderari dagokionez hau erantzun du idazki hau sinatzen duen Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariak.

1- Azterketa horren azkeneko bertsioa 2010eko martxoaren 5ean sartu zen Departamentu honen erregistroan.

2- Une horretan Departamentu honen ardura zutenek 2010eko azaroaren 19an azterketa horren aurkezpen publiko bat egin zuten.

3- Ez dakigu une horretan Departamentu honen ardura zutenek zergatik ez zuten argitaratu osorik azterketa hori eta ez dago idatziz jasota inork hori eskatu zuenik ere. Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariak legealdi honetan azterketa

hori eman izan du, Bildu Nafarroa Parlamentu Taldeak eskaturik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 194.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2011ko abenduaren 2an.

Sustapen eta Etxebizitzako kontseilaria: Anai Astiz Medrano jauna.

Galdera, Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren borondatezko Etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoaren 8 eta 9. artikulua betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren borondatezko Etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoaren 8 eta 9. artikulua betetzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko azaroaren 18ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak osasunaren profesionalen prestakuntzari buruz eta sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko prestakuntza hezkuntza-sisteman sartzeko egindako jardura guztien berri xehea eskatuz idatziz erantzuteko egindako galderari (8-11/PES-00224) hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariak:

Osasun Departamenduak 2/2010 Lege Organikoaren 8. artikuluari dagokionez bideratutako ekimenei buruz, ondoren ematen da Departamentu honen 2010. eta 2011. urteko irakaskuntza-planetan osasunaren profesionalentzat egindako prestakuntza-jardueren berri: Osasun Departamenduak

IKASTAROAREN IZENA	NORENTZAT	HASIERA DATA	BUKAERA DATA	PARTE-HARTZAILE KOPURUA	ORDU KOPURUA	PREZIOA
LAGUNTZA BIDEZKO UGALKETAKO OINARRIZKO EZAGUTZAK	Nafarroako Osasun Sistema Publikoko Obstetrizia eta Ginekologiako emaginak eta erizain diplomatuak	2010/02/10	2010/02/11	29	10	750,28
BIOETIKAKO JARDUNALDIA: KONTZIENTZIA ERAGOZPENA	Osasun-zientzietako unibertsitateko tituludunak eta osasun-zentroetako Laguntza Etikako Batzordeko kideak.	2010/06/04	2010/06/04	92	7	4960
ERDITZEA ETA JAIOTZA HUMANIZATZEARI BURUZKO JARDUNALDIA	Nafarroako Osasun Sistema Publikoko Obstetrizia eta Ginekologiako mediku espezializatuak	2011/10/28	2011/10/28	45	4	2972,6

2/2010 Lege Organikoaren 9. artikuluari dagokionez bideratutako ekimenei buruz, Departamentu honek Hezkuntzako Departamentuarekiko elkarlaneko bideak zahaldu direla legegintzaldi honetan zehar landuz joango diren gai honetan eta interes bereziko beste gai batzuetan Hezkuntza eta Osasunaren Sustapeneko zenbait jardura bideratzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko azaroaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera

Galdera, frantsesezko atal elebidunetako ikasleek *Diplôme d'Études en Langue Française* azterketetara aurkezteko aukera izateko arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Nekane Pérez Irazabal andreak galdera egin du frantsesezko atal elebidunetako ikasleek *Diplôme d'Études en Langue Française* azterketetara aurkezteko aukera izateko arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko azaroaren 11ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak frantsesezko lerro elebidunetako ikasleek Frantziako Hezkuntzako Ministerioak ematen duen *Diplôme d'Études en Langue Française* (DELF) diplomarako probak zergatik aukera ditzaketen, eta Hizkuntz Eskola Ofizialetako probak zergatik egiten ez diren idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-11/PES-00217) hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak, Ingeleseko eta Atzerriko Beste Hizkuntza batzuetako Sailak emandako txostenean oinarrituta:

Hizkuntz ikasketa lehen-lehen mailako premia da gaur egun, eta hala erakusten du une honetan Nafarroako Foru Komunitatean gai horri dagokionez dagoen eskaera sozial handiak. Horregatik, herritar guztiek dute beren prestakuntza eta curriculumak hobetzeko egoki iruditzen zaizkien aukera guztiez askatasunez baliatzeko eskubidea eta aukera.

Europar partekatzen den testuinguru batean egoteak, gainera, aukera gehiago eskaintzen ditu Europar Batasuneko hizkuntzetan maila desberdinetako egiaztagiria eskuratzeko. Testuinguru horretan, bada, Nafarroako Gobernuak Europaren errealitate horretara egokitu ditu bere legeak, horretarako Europar komunitateko hizkuntzen ezauguera egiaztatzen duten titulu eta egiaztagiri desberdinen artean baliokidetzak ezarriz. Foru araudiak Foru Komunitatearen Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen eremurako hizkuntza bakoitzeko gaitasun-maila jakin bat egiaztatzen duten titulu guztiak jasotzen ditu (irailaren 13ko 210/2010 Ebazpena eta otsailaren 28ko 30/2011 Foru Agindua). Diplôme D'études Françaises diploma frantseseko ezagutza-maila desberdinak egiaztatzen dituen titulazio gisa agertzen da araudi honetan.

Frantses Gobernuak frantsesaren ezagutza-maila egiaztatzen duen gazteentzako DELF titulua unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistemaren barruan egokitu zuen: DELF Scolaire. Titulu hori

beste herrialde batzuetako ildo elebidunetan frantses ikasten duten ikasleen eskura dago.

1993an sortu zenetik Nafarroako Urruneko Hizkuntza Eskola Ofizialak Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe eta Institutuekiko elkarlaneko programa koordinatzen du; horren helburu nagusia Bigarren Hezkuntzako ikasleei beren hizkuntz curriculumak erregimen orokorreko eta bereziko irakaskuntzakoekin adostea eta, horrenbestez, Hizkuntza Eskolen ingeles, euskara, frantses eta alemanezko egiaztagiri ofizialak eskuratzeko aukera ematea da.339/1993 Foru Dekretua.

Delf Scholaire titulua ateratzeko azterketak eta EOIDNaren programan parte hartzea ikasleek beren borondatez egitekoak dira.

Horregatik, bada, ondorioz esan daiteke:

1. Ez litzatekeela zentzuzkoa izango Bigarren Hezkuntzako ikasleei Nafarroako Gobernuak bere araudian aintzat hartzen duen egiaztagiri bat ateratzeko deietan parte hartzea eragozte.

2. EOIDNaren elkarlaneko programan parte hartzea ez da beste erakunde batzuek antolatzen dituzten probetan parte hartzearekin batera ezina; horregatik, ikasleek, dauden ikastetxearen bitartez, bietako probetan har dezakete parte.

Iruñean, 2011ko abenduaren 5ean.

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, Caparrosoko granja baten ingurumen baimen integratuaren gaineko epaiaren eraginari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du Caparrosoko granja baten ingurumen baimen integratuaren gaineko epaiaren eraginari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko azaroaren 18ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak Nafarroako Auzitegi Nagusiak NZO Biogasek Caparrosen sustatzen duen esnetarako behien granja bat, biometamizazio-plantadunari emandako ingurumenari dagokion baimenean duen eraginaz idatziz erantzuteko egingdako galderari (8-11-/PES-00222) dagokionez, hau erantzun du Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

- Oraindik ezin da baloratu eragin hori, zeren bai enpresak bai Caparrosoko Udalak errekurtsioa jarri baitute Justiziako Auzitegi Gorenean.

• Nafarroako Gobernuak Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan kasazio-errekurtsoa jarriko duelako jakinarazpena aurkeztu du, izapide hori egin daitekeela iritzirik. Sala horrek onartuko ez balu, kexu-errekurtsoa jarriko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Iruñeko Nabarrerria kaleko Rozalejoko Markesa jauregiaren gaur egungo egoerari, aurreikusi diren jarduketei eta jauregi horren etorkizunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Leuza García jaunak galdera egin du Iruñeko Nabarrerria kaleko Rozalejoko Markesa jauregiaren gaur egungo egoerari, aurreikusi diren jarduketei eta jauregi horren etorkizunari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko azaroaren 11ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak Rozalejoko Markesaren Palazioari buruzko zenbait gairi dagokienez idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00220) hau erantzun du Nafarroako Gobernuak, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Eraikin hori esku-hartzeko dago eta, iragandako denboraren ondorioz normala den bezala, kalteak eta andeatzeak ditu. Kalte eta andeatze larrienen ardurua Nafarroako Gobernuak hartzen du. 2007. urteaz gero 37.000 euro baino gehiago kostatu diren lanak eta garbiketak egin ditu Kultura eta Turismo Departamentuak.

2004. urtean Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak sustatzen duen Nafarroako Sustapen eta Garapen Unitateak lehenengo azterketa bat egin zuen, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Europako Gizarte Funtsak eta Ganberak berak finantzatuta, Rozalejoko Markesaren Palazioan "Nafarroako Ostalaritza Eskola" kokatzeko. Zentro

horrek ostalaritzako prestakuntza-ikastaroak eman behar zituen, sektore honekin lotura duten lanbide-prestakuntza eta etengabeko prestakuntzako ikastaroak, espezializazioko ikastaroak, ikastaro teknikoak eta bestelako jardura batzuk eskainiz; ikastaro eta jardura horiek Nafarroako Ostalaritzako Enpresarien Elkartek eta beste zenbait erakundek eskaini behar zituzten, osagarri gisa diru-sarrerak ere ekartzeko moduan.

Proiektu hori aurrera eramateko behar ziren inbertsioak zati berdinetan jarriko zituzten Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Ostalaritzako Enpresarien Elkartek (Nafarroako Ostalaritzako Kooperatiba eta ostalaritzako enpresak). Alderdien ekarpenen xedea honela banatu zen: Nafarroako Gobernuak eraikina erosiko zuen, Udalak eraikina zaharberritzen lagunduko zuen eta Nafarroako Ostalaritzako Enpresarien Elkartek eraikina zaharberritzea burutu, egokitzea eta ekipatzea hartuko zuen bere gain.

Erakunde horien arteko Hitzarmen bat ere sinatu zen, eta eraikina ordu arteko jabeen erosi zitzaizkien, 50 urteko epe batez doan Nafarroako Ostalaritzako Enpresarien Elkarteari uzteko.

2006ko maiatza-ekaina bitartean Palazioa zaharberritzeko aurreproiektu bat eta eraikinaren erdialdearen banaketa hobeto aztertzeke dokumentu bat erredaktatu ziren. Garai horretan berean Artxandako Ostalaritzako Goi-mailako Eskolak Eskola "Martxan jartzeko proiektu" bat aurkeztu zion Ostalaritzako Enpresarien Elkarteari.

2007ko azaroan, Enpresarien Elkartek Iruñeko Udaleko Zaharberritze Idazkaritza Teknikoari eta Nafarroako Gobernuari idazki bana igorri zion, proiektu hori burutzeari uko eginez eta adieraziz eraikin horrek ez zituela betetzen Artxandako

Eskolaren txostenean aurreikusten ziren baldintzak eta ez zela, horrenbestez, proiektua aurrera eramateko egokitzat jotzen.

Uko egite hori izanagatik ere, Nafarroako Gobernuak 2012ko Nafarroako Planean sartu zuen, eraikin horretan Santiago Bidearen Interpretazio Zentro bat sustatzeko planteamendurekin. Proposamen horrek ez zuen behar adinako adostasun politikorik lortu, hala ere, eta akordiorik ezenez, beste proiektu batzuetarako xedatu zen hasieran horretarako aurreikusita zegoen partida.

Une honetan Palazio horri beste erabileraren bat eman eta hala, ekonomiaren aldetik bideragarri den bezain laster, zaharberritzeko aukerak aztertzen ari da Nafarroako Gobernuak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko abenduan

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, administrazio kontseiluetara joateagatik ordainsariak edo dietak kobratzen dituzten Gobernu kide eta zuzendaritza-karguei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Santiago Cervera Soto jaunak galdera egin du administrazio kontseiluetara joateagatik ordainsariak edo dietak kobratzen dituzten Gobernu kide eta zuzendaritza-karguei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urriaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Santiago Cervera Soto jaunak Sozietate Publikoetako administrazio-kontseiluei dagozkien zenbait gairi buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00221), hau erantzuten du Nafarroako Gobernu kide Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroako Gobernu kide batek ere ez du jasotzen inolako ordainsaririk edo dietarik, beren kargua dela-eta kide diren administrazio-kontseiluetara joateagatik. Nafarroako Gobernuak Foru Komunitate honetako Administrazioako goi-mailako karguen dietarik ez jasotzeko erabakia hartu zuen joan den 2011ko urriaren 19an. Sozietate publikoen administrazio-kontseiluetako kide izan litezkeen funtzionarioei buruzko informazioari dagokionez, ezin da informazio hori eman, une honetan kontseilu horiek osatzen ari dira-eta.

Nafarroako Kutzari edota Banca Cívica buruzko informazioari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin loturarik ez duten erakundeak direnez, Foru Gobernu honek ez du inolako informaziorik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko abenduan

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, goi karguek sozietate publikoen administrazio kontseiluetan parte hartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Txema Mauleón Echeverría jaunak galdera egin du goi karguek sozietate publikoen administrazio kontseiluetan parte hartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko azaroaren 4ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako zenbait enpresa publikoekin zerikusia duten zenbait gairi buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00215), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

1. Aurrerago Nafarroako Gobernuaren izenean 2003tik 2011ko urria bitartean sozietate publikoetako administrazio-kontseiluetako kide izan diren goi-mailako karguen zerrenda ematen da.

Informazio hori baterakuntza egin baino lehen zeuden 38 sozietate publikoei dagokie, une honetan sozietate horien berrantolaketa- eta berregituraketa-prozesuaren ondoren eratu diren sozietate publikoen administrazio-kontseiluen eraketa burutzen ari baita oraindik. Horregatik, beraz, 2011ko ekitaldia 2011ko irailaren 30ean ixten da guztietan. Era berean, Nafarroako Enpresa Publikoen Korporazioa sozietate nagusiari dagokion informazioa ere jasotzen da.

Nafarroako Kutzari edota Banca Cívica buruzko informazioari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin loturarik ez duten erakundeak direnez, Foru Gobernu honek ez du inolako informaziorik.

Nafarroako Enpresa Publikoen Korporazioa

(2009an sortu zenetik 2011 arte)

– Álvaro Miranda Simavilla, bigarren lehendakariordea eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria.

– Anai Astiz Medrano, Sustapen eta Etxebizitzako kontseilaria (2011ko uztailaren 2az gero)

– Idoia Nieves Nuin, NZOko zuzendari-kudeatzailea (2011ko irailaren 29az gero)

– Juan Franco Pueyo, Aurrekontuko zuzendari nagusia (2011ko irailaren 20tik aurrera)

– Camino Bonafaux Martínez, Aurrekontu eta Ikuskatzailetzako zuzendari nagusia (2011ko irailaren 29a arte)

– José Ángel Zubiaur Carreño, Ondarearen zuzendari nagusia (2011ko irailaren 29a arte)

ANAIN (Nafarroako Berrikuntza Agentzia)

2003-2007 BITARTEAN

– José Javier Armendáriz Quel, Industria, Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria.

– Francisco Iribarren Fentanes, lehendakariordea eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria

– Luis Campoy Zueco, Hezkuntzako kontseilaria

– Enrique Díaz Moreno, Industria, Teknologia, Merkataritza eta Merkataritzako zuzendari nagusia

– Fermín Javier Villanueva Ferrera, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusia

– Ángel Sanz Barea, Informazioaren gizarterako zuzendari nagusia.

2007-2011 BITARTEAN

– Álvaro Miranda Simavilla, bigarren lehendakariordea eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria.

– María Kutz Peironcely, Osasuneko kontseilaria

– José María Roig Aldasoro, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria

– Alberto Catalán Higuera, Hezkuntzako kontseilaria

– Juan Franco Pueyo, Nazioarteko Garapeneko zuzendari nagusia

– Cernin Martínez Yoldi, Politika Ekonomikoaren eta Garapenaren zuzendari nagusia

– Begoña Urién Angulo, Enpresako zuzendari nagusia

– Jesús Javier Ascunce Elizaga, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zuzendari nagusia

– Jesús María Echeverría Azcona, Landa Garapeneko zuzendari nagusia

NAFARROAKO GARRAIO ETA LOGISTIKA-KO AGENTZIA

(2008an sortu zenetik 2011 arte)

– Laura Alba Cuadrado, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria

– Susana Labiano Bastero, Garraioetako zuzendari nagusia

– Cernin Martínez Yoldi, Politika Ekonomikoaren eta Garapenaren zuzendari nagusia

BALUARTE

2003 URTEA

– Juan Ramón Corpas Mauleón, Kultura eta Turismoko kontseilaria

– Rosario Martínez González, Gobernuko lehendakariaren kabineteko burua

– Santiago Arellano Hernández, Hezkuntzako zuzendari nagusia

– Cristina Arcaya Sánchez, Turismo eta Sustapeneko zuzendari nagusia

– Carlos Erce Eguaras, Kultura eta Turismoko kabineteko burua

– Joaquín Ortigosa Ocón, Komunikazioko zuzendari nagusia

– José Javier Armendáriz Quel, Industriako kontseilaria

– Nuria Iturriagoitia Ripoll, Industriako kontseilaria

– Jesús Laguna Peña, Hezkuntza eta Kulturako kontseilaria

2004 - 2011 BITARTEAN

– Juan Ramón Corpas Mauleón, Kultura eta Turismoko kontseilaria

– Rosario Martínez González, Gobernuko lehendakariaren kabineteko burua

– Félix Carmona Salinas, Gobernuko lehendakariaren aholkulari instituzionala (2007tik aurrera)

– Cristina Arcaya Sánchez, Turismo eta Sustapeneko zuzendari nagusia (2005 arte)

– Carlos Erce Eguaras, Kultura eta Turismoko kabineteko burua (2007 arte) eta Turismoko zuzendari nagusia (2007tik aurrera)

– Camino Paredes Giraldo, Kulturako zuzendari orokorra (2005 – 2008 bitartean)

– Pedro Luis Lozano Úriz, Kulturako zuzendari orokorra (2008tik aurrera)

– Joaquín Ortigosa Ocón, Komunikazioko zuzendari nagusia

– José Javier Armendáriz Quel, Industria, Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria (2006 arte).

– Álvaro Miranda Simavilla, lehendakariordea eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria (2007an eta 2008an)

CEIN

2003 - 2006 BITARTEAN

– Nuria Iturriagoitia Ripoll, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Laneko kontseilaria (2003 bakarrik)

– José Javier Armendáriz Quel, Industria, Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria (2004tik aurrera).

– José María Roig Aldasoro, Laneko zuzendari nagusia

– José María Aracama Yoldi, Sodenako zuzendari nagusia

– Enrique Díaz Moreno, Industriako zuzendari nagusia (2004tik aurrera)

2007 - 2011 BITARTEAN

– José María Roig Aldasoro, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria (2007 arte)

– Begoña Urién Angulo, Enpresako zuzendari nagusia

– Imelda Lorea Echavarren, Industriako zuzendari nagusia

– José María Aracama Yoldi, Sodenako zuzendari nagusia

CNAI (Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Guneak)

2003 - 2007 BITARTEAN

– Jesús Laguna Peña, Hezkuntza eta Kulturako kontseilaria (2004 arte)

– Santiago Arellano Hernández, Hezkuntzako zuzendari nagusia (2004 arte)

– Fernando Carbajo López, Hezkuntzako kabineteko burua (2004 arte)

– Luis Campoy Zueco, Hezkuntzako kontseilaria (2004tik aurrera)

– Fermín Javier Villanueva Ferrera, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusia (2004tik aurrera)

2007 - 2011 BITARTEAN

– Carlos Pérez Nievas López de Goicoechea, Hezkuntzako kontseilaria (2009 arte)

– Alberto Catalán Higuera, Hezkuntzako kontseilaria (2009tik aurrera)

– Teresa Aranaz Jiménez, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendari nagusia.

– Francisco Javier Esparza Sánchez, Ikuska-pen eta Zerbitzuetako zuzendari nagusia

– Loren Albéniz Ascorbe, Familia, Haurra eta Kontsumoko zuzendari nagusia

– Pedro José González Felipe, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateetako zuzendari nagusia

– Juan Franco Pueyo, Nazioarteko Garapeneko zuzendari nagusia

LOS ARCOSKO ZIRKUITUA

(2007an sortu zenetik 2011 arte)

– Pablo Romera Alonso, SPRINeko zuzendari-kudeatzailea

– Javier Esparza Abaurrea, INDen zuzendari-kudeatzailea (2008tik aurrera)

TUTERAKO CIUDAD AGROALIMENTARIA

(2008an sortu zenetik 2011 arte)

– Begoña Sanzberro Iturriría, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria

– Pablo Romera Alonso, SPRINeko zuzendari-kudeatzailea

– Jesús María Echeverría Azcona, Landa Garapeneko zuzendari nagusia

– Begoña Urién Angulo, Enpresako zuzendari nagusia

IRUÑEKO GARRAIOEN HIRIA

2003 - 2007 BITARTEAN

– José Ignacio Palacios Zuasti, Herri Lanetako kontseilaria (2004 arte)

– Álvaro Miranda Simavilla, Herri Lanetako kontseilaria (2004tik aurrera)

– Arántzazu Betelu Corcuera, Garraioetako zuzendari nagusia (2006 arte)

José María Purroy Unanua, Herri Lanetako kabineteko burua

– Jesús Arlabán Mateos, Iruneko Garraio Hiria SAREN zuzendari-kudeatzailea

2007 - 2011 BITARTEAN

– Laura Alba Cuadrado, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria

– Susana Labiano Bastero, Garraioetako zuzendari nagusia

ECHAURI FORESTAL

– Navarra de Financiación y Control SA (NAFINCO), eta haren ordezkari gisa NAFINCO-ren kudeatzailea: Miguel Ángel Iriso Lerga (2003-2006) eta José María Montes Ros (2006-2011).

NAFARROAKO ENPRESARI GAZTEEN FUNTSA

Nafarroako Gobernuko goi-mailako kargu batek ere ez du parte hartu sozietate honen Administrazio Kontseiluan 2003-2011 bitartean.

GESTIÓN AMBIENTAL, VIVEROS Y REPOBLACIONES DE NAVARRA.

2003 – 2007 BITARTEAN

– Javier Marcotegui Ros, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria (2003)

– Ignacio Elorrieta Pérez de Diego, Ingurumeneko zuzendari nagusia (2003)

– José Andrés Burguete Torres, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria

– Javier Trigo Oubiña, INDJren zuzendari nagusia

– Juan José Grau Lasheras, Ingurumeneko zuzendari nagusia (2004tik aurrera)

2007 - 2011 BITARTEAN

– Andrés Eciolaza Carballo, Ingurumeneko zuzendari nagusia

– Miguel Roncalés Pérez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kabineteko burua

ZORREN KUDEAKETA

2003 - 2004 BITARTEAN

– José María Jiménez Bolea, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren zuzendari-kudeatzailea

2007 - 2011 BITARTEAN

– Idoia Nieves Nuin, Zerga Kontroleko zuzendari (2007-2011) eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari-kudeatzailea (2011)

INSTITUTO DE CALIDAD AGROALIMENTARIA DE NAVARRA

2003 - 2007 BITARTEAN

– Ignacio Martínez Alfaro, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako kontseilaria (2003)

– José Javier Echarte Echarte, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako kontseilaria

– Andrés Eciolaza Carballo, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendari nagusia (2004 arte)

– Jesús María Echeverría Azcona, Landa Garapeneko zuzendari nagusia

2007 - 2011 BITARTEAN

– Begoña Sanzberro Iturriría, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria

– Juan Ramón Corpas Mauleón, Kultura eta Turismoko kontseilaria

– Jesús María Echeverría Azcona, Landa Garapeneko zuzendari nagusia

INSTITUTO TÉCNICO Y DE GESTIÓN AGRÍCOLA

2003 – 2007 BITARTEAN

– Ignacio Martínez Alfaro, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako kontseilaria (2003)

– Andrés Eciolaza Carballo, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusia (2004 arte)

– Javier Errea Iribas, Nekazaritza eta Abeltzaintzako kabinete burua (2004 arte)

– José Javier Echarte Echarte, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako kontseilaria

– Emilio Gurrea Asensio, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako kabinete burua

– Andrés Eciolaza Carballo, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendari nagusia

2007 - 2011 BITARTEAN

– Begoña Sanzberro Iturriría, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria

– Ignacio Guembe Cervera, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendari nagusia

– Miguel Roncalés Pérez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kabineteko burua

INSTITUTO TÉCNICO Y DE GESTIÓN AGRÍCOLA 2003 – 2007 URTEAK

– Ignacio Martínez Alfaro, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako kontseilaria (2003)

– Andrés Eciolaza Carballo, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusia (2004 arte)

– Javier Errea Iribas, Nekazaritza eta Abeltzaintzako kabinete burua (2004 arte)

– José Javier Echarte Echarte, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako kontseilaria

– Emilio Gurrea Asensio, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako kabinete burua

– Andrés Eciolaza Carballo, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendari nagusia

– Jesús María Echeverría Azcona, Landa Garapeneko zuzendari nagusia

2007 - 2011 BITARTEAN

– Begoña Sanzberro Iturriría, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria

– Ignacio Guembe Cervera, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendari nagusia

– Jesús María Echeverría Azcona, Landa Garapeneko zuzendari nagusia

– Miguel Roncalés Pérez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kabineteko burua

NAVARRA CLIMATE SYSTEMS

– José María Aracama Yoldi, SODENAKo zuzendari-kudeatzailea

– José María Ascunce Elizaga, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zuzendari nagusia

– Cernin Martínez Yoldi, Politika Ekonomikoaren eta Sustapenaren zuzendari nagusia

– José Andrés Burguete Torres, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilaria (2004 arte)

– Javier Marcotegui Ros, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilaria (2003)

– Luis Zarraluqui Ortigosa, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako zuzendari nagusia (2003)

NAVARRA DE FINANCIACIÓN Y CONTROL.

2003 – 2007 BITARTEAN

– Francisco Iribarren Fentanes, lehendakariordea eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria.

– Nuria Iturriagagoitia Ripoll, Industriako kontseilaria (2004 arte)

– José Javier Armendáriz Quel, NZOren zuzendari-kudeatzailea (2003) eta Industria eta Merkataritzako kontseilaria

– Enrique Jiménez Goicoa, Industriako zuzendari nagusia (2004 arte)

– Joaquín Ortigosa Ocón, Ekonomia eta Ogasuneko kabinete burua (2003) eta Komunikazioko zuzendari nagusia

– José María Roig Aldasoro, Laneko zuzendari nagusia

– Javier Taberna Aldaz, Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusia (2004 arte)

– José Ángel Zubiaur Carreño, Ondarearen zuzendari nagusia (2003) eta Europako Aferen eta Plangintzaren zuzendari nagusia

– Enrique Díaz Moreno, Industria eta Merkataritza zuzendari nagusia (2004 eta 2005)

– José Ignacio Pérez de Albéniz Andueza, NZOren zuzendari-kudeatzailea (2004tik aurrera)

2007 - 2011 BITARTEAN

– Álvaro Miranda Simavilla, bigarren lehendakariordea eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria.

– José María Roig Aldasoro, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria

– José Ignacio Pérez de Albéniz Andueza, NZOren zuzendari-kudeatzailea (2004tik aurrera)

– Marta Álvarez Alonso, Gizarte zerbitzuen eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendari nagusia

– Alberto Catalán Higuera, Erakunde Harremanetako kontseilaria eta Bozeramalea

– Imelda Lorea Echavarren, Laneko zuzendari nagusia

– Begoña Urién Angulo, Enpresako zuzendari nagusia

– José Ángel Zubiaur Carreño, Ondarearen zuzendari nagusia

NAVARRA DE GESTIÓN PARA LA ADMINISTRACIÓN

2003 - 2007 BITARTEAN

– Francisco Iribarren Fentanes, lehendakariordea eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria.

– Calixto Ayesa Dianda, Gizarte Ongizateko, Kiroleko eta Gazteriako kontseilaria (2004 arte)

– Ignacio Martínez Alfaro, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako kontseilaria (2003)

– Juan Santafé Rodrigo, Antolaketa eta Informazio Sistemen zuzendari nagusia (2003)

– José Ignacio Pérez de Albéniz Andueza, NZOren zuzendari-kudeatzailea (2004tik aurrera)

– Enrique Díaz Moreno, Industria eta Merkataritzako zuzendari nagusia (2004tik aurrera)

– Ángel Sanz Barea, Informazioaren gizarterako zuzendari nagusia (2004tik aurrera)

– José María Roig Aldasoro, Laneko zuzendari nagusia

2007 - 2011 BITARTEAN

– José María Roig Aldasoro, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria

– Imelda Lorea Echavarren, Laneko zuzendari nagusia

– Begoña Urién Angulo, Enpresako zuzendari nagusia

– José Luis Menéndez Rodríguez, Modernizazio eta Administrazio Elektronikoko zuzendari nagusia

– Ángel Sanz Barea, TRACASaren zuzendari-kudeatzailea

NAVARRA DE INFRAESTRUCTURAS LOCALES

2003 - 2007 BITARTEAN

– Rafael Gurra Induráin, Toki Administrazio kontseilaria (2003)

– Juan Frommknecht Lizarraga, Toki Administrazio kontseilaria (2003)

– Alberto Catalán Higuera, Toki Administrazio kontseilaria

– Ángel Serrano Azcona, Toki Administrazio kontseilaria

– Francisco Javier Errea Iribas, Toko Administrazio kabinete burua

2007 - 2011 BITARTEAN

– Amelia Salanueva Murguialday, Toki Administrazio kontseilaria

– Pedro Pegenaute Garde, Toki Administrazio kontseilaria

NAVARRA DE MEDIO AMBIENTE INDUSTRIAL

2003 - 2007 BITARTEAN

– Javier Marcotegui Ros, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilaria (2003)

– Ignacio Elorrieta Pérez de Diego, Ingurumeneko zuzendari nagusia (2003)

– José Andrés Burguete Torres, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria

– Ángel Serrano Azcona, Toki Administrazio zuzendari nagusia

– Juan Ramón Corpas Mauleón, Kultura eta Turismo kontseilaria

– José María Abad Alegría, Justiziako zuzendari nagusia

– Juan José Grau Lasheras, Ingurumeneko zuzendari nagusia

2007 - 2011 BITARTEAN

– Begoña Sanzberro Iturriría, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria

– Andrés Eciolaza Carballo, Ingurumeneko zuzendari nagusia

NAVARRA DE SERVICIOS

2003 - 2007 BITARTEAN

– Francisco Javier Enériz Olaechea, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusia

– Ignacio Bandrés Urriza, Funtzio Publikoko zuzendari nagusia (2003) eta INAPEko zuzendaria

– Ildfonso Sebastián Labayen, Lehendakari-zako zuzendari nagusia

– José Martín Oroz Úriz, EVENAren zuzendari-kudeatzailea (2004 arte)

– Andrés Eciolaza Carballo, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendari nagusia (2004tik aurrera)

– José Joaquín Pejenaute Cervera, EVENAren zuzendari-kudeatzailea (2005etik aurrera)

– Javier Sanz Villar, ITGAren zuzendari kudeatzailea

– Carlos Santamaría Echarte, ITGGren zuzendari-kudeatzailea

– Jesús Cemboráin Luquin, VIVEROSen zuzendari-kudeatzailea

– Miguel Angel Horta Sicilia, Riegos de Navararren zuzendari-kudeatzailea

2007 - 2011 BITARTEAN

– Ignacio Bandrés Urriza, INAPEko zuzendaria (2009 arte)

– Ildfonso Sebastián Labayen, Lehendakari-zako zuzendari nagusia

– Javier Caballero Martínez, lehendakariordea eta Lehendakari-zako, Justizia eta Barne Arazoetako kontseilaria

– Roberto Rubio Torrano, Justiziako zuzendari nagusia

– Dolores Eguren Apesteguía, Erakunde Harremanetako zuzendari nagusia

– Gregorio Eguílaz Gogorza, Funtzio Publikoko zuzendari nagusia

– Javier Sanz Villar, ITGAren zuzendari-kudeatzailea

– Carlos Santamaría Echarte, ITGGren zuzendari-kudeatzailea

NAVARRA DE SUELO INDUSTRIAL

2003 - 2007 BITARTEAN

– Enrique Jiménez Goicoa, Industriako zuzendari nagusia (2003)

– Enrique Díaz Moreno, Industria, Teknologia, Merkataritza eta Merkataritzako zuzendari nagusia

Patxi Leuza García jaunak galdera egin du eraikin historiko-artistikoak zaharberritzeko eta babesteko inbertsioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko azaroaren 25eko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza jaunak eraikin historiko-artistikoen zaharberritzeko eta babesteko inbertsioari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00225) hau erantzun du Nafarroako Gobernu

ko Gobernu Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

2008 urtean 5.785.798 €

2009 urtean 7.166.845 €

2010 urtean 8.008.894 €

2011 urtean 4.401.583 €

2012. urteko aurrekontu-proiektuari dagokionez, 4.286.500 €-ko partida bat dago alor honetan; partida horren bidez Elizaren eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuen jabetzako ondasunetan egiteko zenbait jarduerari erantzun lekieke.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko abenduan

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako Kutzako Entitate Sortzaileen Batzarraren bilkuretara joateagatik kobraturiko ordainsarien tratamendu fiskalari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Víctor Rubio Martínez jaunak galdera egin du Nafarroako Kutzako Entitate Sortzaileen Batzarraren bilkuretara joateagatik kobraturiko ordainsarien tratamendu fiskalari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko azaroaren 25eko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak Nafarroako Aurrezki Kutzako Sortzaileen Batzordearen eta Sortzaileen Batzorde Iraunkorraren bileretara joateagatik dietei ematen zaien trataera fiskalari buruz (PES-00226) idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez, hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

1.- Jasotako ordainsari horien zerga-sailkapena lan etekinengatikoa da (2008 Legegintzako Foru Dekretuaren, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko testu bategina onesten duenaren 13. artikulua); horregatik bada, ordainsari horiei Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari dagokion tributazio osoa aplikatzea dagokie.

Etekin horiek Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren Erregelamendua arautzen duen 174/1999 Foru Dekretuaren 71. artikuluan aurreikusita dagoen atxekipena egiteko derrigortasuna dute.

2.- Erakunde Sortzaileen Batzorde Iraunkorren bileretan parte hartzeari dagokionez, aurreko atalean aipatutako berbera da zerga-tratamendua.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko abenduaren 21ean.

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Lergako lurzati-berrantolamenduan egiten ari diren obretarako materialaz hornitzeko harrobiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak galdera egin du Lergako lurzati-berrantolamenduan egiten ari diren obretarako materialaz hornitzeko harrobiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko azaroaren 25eko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak Lergako lurzati-berrantolamenduko lanei buruz (PES-227) idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez, hau erantzun du Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

Lehenengo galderari dagokionez: Zer harrobi erabili dira Lergako lurzati-berrantolamenduko obrak materialez hornitzeko? Harrobi horietako bakoitzeko zenbat material erabili da gutxi gorabehera, ehunekotan adierazirik? Harrobi horiek ba al dute Nafarroako Gobernuako Ingurumen Departamenduak?

mentuaren eta Meategi Atalaren ustiapen-baimenik?

Materiala hiru puntutatik atera zen.

1. material-ateratzea.

Lergako lurzati-berrantolamenduko 4. poligonoko 265. eta 266. finketatik. % 5, obrak egitean zenbait erremate egiteko. Material-ateratzea hain arina izanda 1. puntuan –metro bat baino gutxiago jaitsi zen luraren maila, eta laborantzarako erabiltzen den soro batetik–, ez da beharrezkoa baimena eskatzea Nafarroako Gobernuaren Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuari.

2. material-ateratzea.

Galipentzuko 4. poligonoko 468. eta 473. finketatik. % 65, bide nagusietan 20 cm-ko lodierako azpioinarri bat ezartzeko, eta 10cm-koa bigarren mailako bideetan. Honekin batera doa 62/2009 Ebazpena, otsailaren 18koa, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko zuzendariak emana, ingurumen ukipeneterako baimena baldintzapean ematen duena, Galipentzuko finken erregularizazioaren ondoriozko materialak ustiatu eta aprobetxatzeko proiekturako –Galipentzuko udal mugapeko katastroko 4. poligonoko 473. eta 468. lurzatiak; La Recueja alderdia– Lergako (Nafarroa) lurzati berrantolamendurako, Excavaciones Ory, S.A.k sustaturik.

Energiaren, Meatzaritza eta Industria Seguratasunaren Zerbitzuaren baimenei dagokienez, halakorik ez da ageri, uste baitugu indarrean den araudiak ez duela horren beharrik ezartzen interes orokorrekoak diren obretarako, eta hala deklaratu zen orain hizpide duguna (228/1999 Foru Dekretua, ekainaren 14koa, Nafarroako Gobernuarena, Lerga aldeko lurzati berrantolamendua lehenbailehen egin beharra eta haren onura publikoa deklaratzeko duena). Enpresako zuzendari nagusiaren azaroaren 17ko 2522/2010 Ebazpenak espresuki aipatzen du puntu hori.

3. material-ateratzea.

Alaizko harrobi komertziala: % 30 material granular nahasia, aukeratua (gehienez ere 2^o-koa) eta hondar aukeratua. Beharrezkoak diren baimen guztiak ditu harrobiak

Bigarren galderari dagokionez: Nafarroako Gobernuak baimendu al du partikularren materialen bilketa, Lergako lurzati-berrantolamenduko obretan erabiltzeko? Hala baldin bada, zenbat ordaindu zaie partikularrei bere finketatik ateratako materialengatik? Zer zenbateko ziurtatu zaio obren

kontratatari, Lergako udal mugapeko finka partikularretatik ateratako materialari egozten ahal zaionetik?

Eraikitzailea ados jarri zen 4. poligonoko 265. eta 266. finken jabeekin finka horiek erabiltzeko, behin egiaztatu zenean materialak betetzen zituela obra-proiektuaren baldintza teknikoak. Material horrek Lergako bideen superegituraren % 5 besterik ez du egiten. Ez dakigu kontratistak ze dirukopuru pagatu zien partikularrei, hori haien arteko kontua baita. Amaierako ziurtagiriaren arabera, esanenez, Lergako materialek, ziurtagiria izan duten obra guztiak kontuan hartuta, % 5 egiten dute.

Laugarren eta azken galderari dagokionez: Departamentuak ba al daki ea eraikitzailearen batek edo partikularren batek alta eman duen Lergako Udaleko jarduera ekonomikoen gaineko zergan, harrobi bat ustiatzeko xedez?

Lehenengo puntuan aipatuenez, Lergako lurzati berrantolamenduko eginkoa ez denez munta handikoa izan, eta horrelakoek ez dutenez, beraz, ingurumen-baimenik behar, uste dugu eraikitzaileak ez duela zertan alta emanda egon Lergako Udalean jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaintzeko.

Lergako lurzati-berrantolamendua –horren barruan daude egindako material-ateratzeak– foru dekretuz onetsi zen (228/1999 Foru Dekretua, ekainaren 14koa, Lerga aldeko lurzati berrantolamendua lehenbailehen egin beharra eta haren onura publikoa deklaratzeko duena); "Lergako lurzati-berrantolamenduak hartzen duen guneko bideen eta hustubideen sarea" egiteko obrak, berriz, foru aginduz onetsi ziren (271/2008 Foru Agindua, ekainaren 2koa, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariarena). Proiektu horretako obren exekuzioa Excavaciones Ory, S.A. enpresari esleitu zitzaion, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren abuztuaren 11ko 430/2008 Foru Agindua bidez.

Honekin batera doaz 62/2009 Ebazpena, otsailaren 18koa, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko zuzendariarena, eta 2522/2010 Ebazpena, azaroaren 17koa, Enpresako zuzendari nagusiarena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko abenduaren 20an.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroako Gobernuak bere enpresa publikoen bitartez Esako arrain-haztegiaren duen partaidetzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak bere enpresa publikoen bitartez Esako arrain-haztegiaren duen partaidetzari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko azaroaren 25eko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak Nafarroako Gobernuak bere enpresa publikoen bitartez Esako arrain-haztegiaren duen partaidetzari buruz idatziz erantzuteko egin duen galderari (PES-228) dagokionez, hau erantzun du Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

Lehenengo galderari dagokionez: Nafarroako Gobernuak ba al dauka partaidetzarik, bere enpresa publikoen bidez, Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.n? Hala baldin bada, partaidetza horren gaineko dokumentazioaren kopia jaso nahi dugu, bai eta Nafarroako Gobernuak edo bere enpresa publikoek lortutako errentagarritasunari buruzko informazioa, Sodena enpresa publikoak arrain-haztegi hori dela-eta egindako kudeaketei buruzko informazioa eta Esako arrain-haztegiaren une honetan dagoen gaizketa-motari buruzko informazioa ere.

Nafarroako Gobernuak badu partaidetza bat Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.n, Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L (Sodena, S.L. edo Sodena) enpresa publikoaren bitartez. Partaidetza hori Sodena, S.A. (Sodena) iraungiak zeukan; sektore publikoaren berrantolakuntza-planaren arabera egin den baterakuntza-prozesuaren ondorioz, ordea, Nafinco, S.A., NGA, S.A. eta Fondo Jóvenes Empresarios, SPE iraungiekin batera, Sodena S.L. elkartean bat eginik geratu da enpresa hori.

Partaidetza horri buruz eskatzen den dokumentazioari dagokionez, Parlamentuaren Aldizkari Ofizialaren 2010eko urtarrilaren 13ko 1. alean

(PES 248/09) informazioari emandako erantzun gisa argitaratuta dagoen erantzunaren 9. atalean adieraziak gogoratu nahi ditugu.

Honela dio, hitzez hitz, 9. atal horrek:

“Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.A.k Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.ren kapital sozialaren partaidetza bat hartu zuen 2008ko apirilean, eta hartan parte hartzeari buruzko txostenak merkataritza-sozietate bati dagozkionak dira, eta, horrenbestez, isilpekoak. Ezin dugu isilpekotasunklausula batean babesturiko inongo informaziorik eman, informazio publikoaren izaera duenaz beste –sozietatearen urteko kontuetan jasota dagoena–; horretan egiazta baitaiteke, izan ere, sozietate horren akziodunak zein diren. Hortxe egiazta daiteke akziodun bakoitzak sozietate horretan zein inbertsio egin duen”.

Sodena S.L.ren inbertsioa 5 milioi eurokoa da une honetan; ehuneko 45eko partaidetza du Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.n eta, horrez gainera, partaidetzarako mailegu bidezko 3,8 milioi euroko finantzaketa-laguntza bat du eta 0,2 milioi euroko abal bat finantza-erakundearen aurrean.

Nafarroako Gobernuak edo beronen enpresa publikoek Piscifactoría Sierra Nevada S.L. sozietatean lortutako errentagarritasunari buruzko informazio-eskakizunari dagokionez, esan beharra dago gaur egun arte ez dela inolako irabazi ekonomikorik lortu sozietate horretatik, partaidetzaren duen enpresen kapitalean aldi baterako parte hartzea eta gero haietan egindako inbertsioak kentzea izaten baita Sodena S.L.ren ohiko prozedura; eta une horretan sortzen dira, hain zuzen, egindako inbertsioaren gainbalioak edo balio-beheititzeak.

Sodenak “aipatutako arrain-haztegiarentzat” egindako gestioez galdetzen denean, Piscifactoría Sierra Nevada S.L.arentzat egindako gestioez galdetzen dela ulertzen dugu. Gai honi dagokionez, beraz, esan beharra dago sozietate horren administratzaile-kargua betez eginak izan direla gestio horiek guztiak, Sodenak ordezkari bat baitu haren Administrazio Kontseiluan eta Kontseilu horren bileretan parte hartzen du, horrenbestez.

Orobat adieraz daiteke, lehen aipatutako galderari (PES 248/09) emandako erantzunaren 15. atalean azaldu zen bezala, A. Nacarii motakoa dela une honetan Esako arrain-haztegiaren dagoen gaizketa, eta ez dela oraingo inolako jardura

industrialik egiten arrain horrekin, horretarako behar diren baimenak iritsi zain baitaude.

Bigarren galderari dagokionez:

– 2009ko otsaila: Aholkularitza profesionala, SODENAK Piscifactoría de Sierra Nevada arrain-haztegian parte hartzen hastetik 2009ko otsailaren 28a arte, SODENAK Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.n zuen partaidetzan egin zitezkeen doikuntzetarako izandako negoziaketetan. Partaidetza hori definitzen eta partaidetza-baldintzak berritzen laguntzea. ARPA Abogados bulegoari kontratatu zitzaion lan hau. Zenbatekoa: 11.850 euro.

– 2010eko uztaila-iraila: Laguntza juridikoa Piscifactoría Sierra Nevada S.L.aren alde abal bat emateko, hark mailegu bat eskatzeko. ADV Abogados bulegoari kontratatu zitzaion lan hau. Zenbatekoa: 1.750 euro.

– 2011ko urtarrila-uztaila: Laguntza juridikoa Piscifactoría Sierra Nevada S.L.aren lege- eta merkataritza-egoerari buruz eta SODENAK konpainia horretako sozio gisa duen egoerari buruz. Beste zenbait gairen artean, egoera hori merkataritzaren ikuspegitik eta Konkurtsoari buruzko Legearen ikuspegitik ebaluatzea. Egoera ekonomikoaren eta finantza-egoeraren, sozioen arteko hitzarmenen eta izan zitezkeen inbertsiogileen arabera bidera zitezkeen alternatibak aztertzea. Finantza-inbertitzaileak eta industria-inbertitzaileak lortzeko gestioetan laguntzea. Bideratzeko jarduerak planifikatzea eta sustatzea. ARPA Abogados bulegoari kontratatu zitzaion lan hau. Zenbatekoa: 13.500 euro.

– 2011ko maiatza-uztaila: Piscifactoría Sierra Nevada S.L.aren egoeraren jarraipena egiteko laguntza juridikoa, SODENAK Piscifactoría Sierra Nevada S.L.n sozio gisa duen egoerari buruzko azterketa-txostena, Salerosketako Kontraturako aholkularitza. ADV Abogados bulegoari kontratatu zitzaion lan hau. Zenbatekoa: 4.537,47 euro.

– 2011ko abuztua-iraila: Laguntza juridikoa Piscifactoría Sierra Nevada S.L.aren egoeraren jarraipena egiteko. ADV Abogados bulegoari kontratatu zitzaion lan hau. Zenbatekoa: 800 euro.

Nafarroako Gobernuak ba al du gaizkata-hazkuntza dela-eta Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L. Esan jarduera irregularrak egiten ari delako berri?

Esan beharra dago Nafarroako Gobernuak baduela 2008ko eta 2009ko bi aginduz baimendutako gaizkaten erabilera irregulartasunak izan direlako berria. 2010eko azaroan, garai hartako Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zigor-espeditente bat zabaldu zuen Pisci-

factoría Sierra Nevada, S.L.ri gaizkaten erabilpeneko emandako epea ez betetzeagatik. Zigor-erabakiaren kontra helegitea egin zuen zigortutako enpresak. Helegite hori ez du aintzat hartu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak.

Azken galderari dagokionez: Sodenaren Administrazio Kontseiluren batean aztertu al da Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.n egindako inbertsioren egoera? Eztabaidatu eta hartutako erabakien kopia eskatzen da.

Sodenako Administrazio Kontseiluak bilera bat baino gehiagotan aztertu ditu Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.ari buruzko zenbait alderdi; horregatik, bada, parte hartzea bera eta hari eman zaion finantzazko laguntza eta beste zenbait gai jasota daude ondoren aipatzen diren bileretako aktetan:

144. akta (2007ko maiatzaren 24koa)

145. akta (2007ko abenduaren 19koa)

155. akta (2009ko martxoaren 6koa)

165. akta (2010eko ekainaren 25ekoa)

171. akta (2011ko maiatzaren 18koa)

172. akta (2011ko ekainaren 30ekoa)

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 2011ko irailaren 12ko Testu Bategineko 14.2 artikulua agintzen duen bezala, foru parlamentariak eskubidea dute haren erakunde publikoei, sozietate publikoei eta fundazio publikoei dagokien informazio guztia eskatzeko, informazio horiek ezagutzeak datu pertsonalak babesteko legez emanda dauden bermeak urratzen ez baditu, betiere.

Horregatik, hain zuzen, Departamentu honek garai hartako Parlamentuko lehendakariari bidalitako 07/09 PEI-00323 Informazio Eskieran sartutako puntu bati emandako erantzunean ere aipatzen zen bezala, Sodenako Administrazio Kontseiluaren akten edukia, oraingo kasu honetan Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.ari buruzkoa, zabaltzeak, Piscifactoría Sierra Nevada S.L. merkataritza-sozietatearen datu pertsonalen babes-eskubidea urratu ez ezik, merkataritza-sozietate horren merkataritza-interesentzat ere kaltegarri izan daitekeela deritzogu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko abenduaren 21ean.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, “0-3 urteko haurrak eskolatzeko hitzarmenak udalekin (Ezkaroze, Lerin, San Adrián, Altsasu eta Arbizu)” kontusailaren betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitziber Sarasola Jaca andreak galdera egin du “0-3 urteko haurrak eskolatzeko hitzarmenak udalekin (Ezkaroze, Lerin, San Adrián, Altsasu eta Arbizu)” kontusailaren betetzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko abenduaren 16ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak Ezkaroze, Lerin, San Adrian, Altsasu eta Arbizu Udalekiko Hitzarmenak 0-3 urteko haur-eskolak deituriko 1.027.459 euroko 41810 410001 7609 325106 aurrekontu-lerroaren egoeraz idatziz erantzuteko egindako galderari (8-11/PES-00230), Hezkuntzako Departamenduaren Hezkuntza Azpiegiturarako Zerbitzuak emandako txosten hau bidaliz erantzun dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak:

“Aurrekontuetako kontusail hori ia osorik beteta dago. Altsasuko Udalari 189.091,43 euro ordaintzea geratzen da egiteko. Ordaintzeko espedien-

tea, justifikaziozko dokumentuak abenduaren 23an sartu zirenez, tramitatzen ari da oraindik, eta bi aste baino lehenago beteko da. Ezin izango da hitzarmenean aurreikusten zen diru-laguntza osoa ordaindu –203.065,29 euro–, Udalak ez dituelako kopuru osoari dagozkion inbertsioen zurigarriak aurkeztu; horregatik, hain zuzen, 13.973,69 euroko soberakin bat geratzen da.

Ezkarozeko Udalari emandako diru-laguntzatik ere 0,17 euro geratzen dira.

Ordainketa horiek ondoko zerrenda honetan zehazten den bezala ebatzi ziren:

– Ikuskaritzako eta Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiaren maiatzaren 20ko 258/2011 Ebazpenez, Arbizuko Udalari 281.065,53 euro ordaintzea onartu zen.

– Ikuskaritzako eta Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiaren maiatzaren 20ko 261/2011 Ebazpenez, San Adriango Udalari 414.634,69 euro ordaintzea onartu zen.

– Ikuskaritzako eta Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiaren maiatzaren 24ko 270/2011 Ebazpenez, Leringo Udalari 85.476,24 euro ordaintzea onartu zen.

– Hezkuntza Baliabideetako Zuzendari Nagusiaren urriaren 19ko 196/2011 Ebazpenez, Ezkarozeko Udalari 43.217,25 euro ordaintzea onartu zen

Ondoko koadro honetan laburbiltzen da:

	Emandako diru-laguntza	Ordaindutako diru-laguntza	Soberakina
ALTSASU	203.065,12	189.091,43	13.973,69
ARBIZU	281.065,53	281.065,53	0,00
EZKAROZE	43.217,42	43.217,25	0,17
LERIN	85.476,24	85.476,24	0,00
SAN ADRIÁN	414.634,69	414.634,69	0,00
Guztira	1.027.459,00	1.013.485,14	13.973,86”

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 9ean.

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, 1512-2012 mendeurrena ospatzeko programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitziber Sarasola Jaca andreak galdera egin du 1512-2012 mendeurrena ospatzeko programari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko azaroaren 18ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak 1512-2012 mendeurrenaren ospakizun-egitarauari buruz ida-

tziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00223), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Une honetan Nafarroako Gobernuak ez du erabat burutu 1512-2012 Mendeurrena ospatzeko behin betiko egitaraua. Egiteko jarduerak eta ospakizunak zehaztu bezain laster jakinaraziko dira zehazki.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko urtarrila.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Valtierrako San José Egoitzako postuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du Valtierrako San José Egoitzako postuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko abenduaren 16ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Valtierrako San José Egoitzako lekuei buruzko itunari buruz idatziz erantzuteko galderari dagokionez (PES 229/11), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak:

Nafarroako Mendetasuneko Agentziaren Zuzendari Kudeatzailearen maiatzaren 6ko 1232/2009 Ebazpenaz "Concerdep Programaren" barruan Mendekotasuna duten Adineko Pertsonen Egoitzetan Arreta eskaintzeko Zerbitzuak kontratatze behar diren baldintzak erabaki ziren.

2009ko ekitaldian hasi zen kontratazioaren lehenengo aldia. Urte horretan "Concerdep Programaren" xedea izan ziren lekuak Mendekotasun Handiko 1. eta 2 mailan eta Mendekotasun Larriko 2. mailan zeuden pertsonen zegozkienak izan ziren; pertsona horiek izaera publikorik ez zuen edo Foru Administrazioarekiko kontratupekoa ez zen egoitza-leku batean aurkitzen ziren une horretan, egonaldia ordaintzeko diru publikoaren laguntza izan zein ez.

2009ko abenduaren 17an kontratu bat sinatu zen bi helbururekin: Valtierrako San José Egoitzan 21 pertsonentzako tokien arreta hartzeko lanetarako, aipatutako programaren barruan, lehenengo kontratazio-aldian kontratatutako mendekotasun

mailetarako. Data horretara arte ez zegoen egoitza horrekin itundutako tokirik.

Valtierrako egoitza 2009ko martxoaren 19an inauguratu zen, eta kontratua egin zen unean 49 pertsonentzako tokiak zeuden okupatuta; horregatik, bada, hasieran itundutako tokiak toki guztien % 42,86 ziren.

Egoitza horrek dituen toki guztiekin alderatuta -75 pertsona hartzeko lekua-, % 28 da itundutakoa.

SIPSSek ematen dituen datuen arabera, 2011/12/16an, Nafarroako Mendekotasunetarako Agentziak itunduta dauzkan 21 leku horiez gainera, egoitza hori zerbitzuari atxikitako emaitza bezala erabiltzen duten 17 pertsonarentzat laguntzak izendaturik ditu Agentzia horrek. Ez dago daturik egoitzak bere kabuz zuzenean kudeatzen dituen plaza pribatuen une honetako okupazio-mailaz.

Nafarroako gainerako egoitzetan bezala, dauden leku guztiak itun baten barruan zergatik hartzen ez diren galderari dagokionez, esan beharra dago erantzun honen hasieran adierazitako baldintzetan mendekotasun-egoeran dauden pertsonen dagozkien lekuak kontratatzean oinarritu zela gaur egun indarrean dagoen itun-eredua, eta horrexegatik direla 21 Valtierrako egoitzarekin itundutako lekuak. 2012 urte honetan zehar ez dago aurreikusita egoitzako leku gehiago ituntzeko asmorik, aipatutako mendekotasun-mailei dagozkien baldintzak betetzen dituztenak salbu, eta Nafarroako Foru Komunitaterako egoitzekiko itun-eredu berri baterantz jotzeko azterketak egiten ari direla.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 11n

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Elena Torres Miranda

Galdera, jakiteko zergatik Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak informazioa ukatzen dien eskatzen duten parlamentu-taldeei.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko zergatik Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak informazioa ukatzen dien eskatzen duten parlamentu-taldeei.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko abenduaren 23ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Parla-

ri-taldeei ematen zaien informazioari buruz idatziz erantzuteko galderari dagokionez (PES-231), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Bat ere ez. Eskatutako informazio guztia ari gara ematen, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 2011ko irailaren 12ko Testu Bategineko 14. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 13an.

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, jakiteko Larrialdietarako Landa Zerbitzuak berrikusi eta aldatzeko asmorik ba ote den.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du jakiteko Larrialdietarako Landa Zerbitzuak berrikusi eta aldatzeko asmorik ba ote den.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko urtarrilaren 3ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak Osasuneko Departamentuak Landa Eremuetako Larrialdietarako Zerbitzuak berrikusi eta aldatetako egiteko duen asmoaz idatziz erantzuteko eginda-

ko galderari (8-11/PES-00234) hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak:

Bai, Osasuneko Departamentuak berriro aztertu eta planteatu nahi du Nafarroako Landa Eremuetako Larrialdietarako Arreta Zerbitzuaren, Ospitaletako Larrialdien eta Ospitalez kanpoko gainerako Larrialdi Zerbitzuen antolamendua, arreta-zerbitzu hobe, arrazionalagoa eta eraginkorragoa emateko.

Azterketa horren ardura duen talde teknikoak ez du burutu oraindik egoeraren analisia eta berrantolaketa-proposamena; horregatik, hain zuzen, oraindik ezin jakin daiteke zertan gauzatu-ko diren Landa Eremuetako Larrialdietarako Zerbitzuen berrikusketa eta aldatetako.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 19an.

Osasun kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Sodenaren eta Europako Inbertsio Bankuaren arteko hitzarmena eta entitate finantzarioekin egin beharreko hitzarmenak sinatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du Sodenaren eta Europako Inbertsio Bankuaren arteko hitzarmena eta entitate finantzarioekin egin beharreko hitzarmenak sinatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko urtarrilaren 3ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak "Moderna

BEI mailegu globala Sodenari emateaz eta zenbait Finantza Erakunderekin sinatutako Hitzarmenez" idatziz erantzuteko egindako galderari (8-11-/PES-000232) dagokionez, hau erantzun du Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

SODENA eta BEI arteko mailegua otsailaren lehenengo astean sinatuko dela aurreikusita dago.

Behin mailegu hori sinatu ondoren, ahalik eta bizkorren sinatuko da erakundeekin ere.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 25ean.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Sodenak Parquenas S.A. sozietateari (Senda Viva) eginiko kapital-ekarpenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du Sodenak Parquenas S.A. sozietateari (Senda Viva) eginiko kapital-ekarpenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko urtarrilaren 3ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak Parquenasari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari (8-11-/PES-000233) dagokionez, hau erantzun du

Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

1. Zergatik gainerako hiru bazkideek oro har, eta aipatu Hiscan Patrimonio II sozietateak, bereziki, ez dute ekarpen proportzionalik egin? Gainerako bazkideek edo horietako baten batek eman al diote kontrabermerik Sodenari, jarritako kreditu eta abalengatik? Zein?

Lehenik eta behin esan beharra dago Parquenasarako behar izan den finantzaketa osorako gainerako akziodunek beren partaidetzaren ehunekoaren proportziosko ekarpenik egin ez badute ere, kapital soziala osatzeko hasierako ekarpenak bai, proportzioaren arabera izan zirela. 2004ko ekitaldiaren bukaeran adierazi zuten ez zeudela prest proiektuari finantza-bermea ematen jarraitzeko, bakoitzak bere arrazoien arabera.

Kontrabermeei dagokionez, esan beharra dago, 2003ko maiatzeko 15ean sinatutako kreditu-

en kontrabermeen eskrituretan agertzen den bezala, Sodenak Parquenasaren alde emandako abalaren kontraberme-emaille gisa jokatu zutela gainerako sozioetako bik, kapital sozialean zuten portzentajearen arabera, Nafarroako Kutxaren eta Vasconiako Bankuaren aldetik hartutako 3.5 M€ eta 10,5 M€-ko mugetarainoko kreditu-polizen bidez.

2. Zer administrazio-organo dauka Parquenasak? Ba al du Sodenak organo hori izendatzeko ahalmenik, gainerako bazkideen iritzia kontuan hartu gabe?

Sozietate hori Administratzaile Bakar batek administratzen du eta hura da sozietatearen ordezkaria; Administratzaile Bakar hori bost urtez behin izendatzen da; gaur egungoak 2015a arte du kargua.

Ez, hitzartutakoaren eta 4. galderaren erantzunean azaltzen denaren arabera, kredituak kapitalizatzeke duen eskumenaz baliatu ezean.

3. Bazkideekin hitzartu al da ez dela dibidendu-banaketarik eginen Sodenak sozietateari egindako maileguak kobratu arte eta gainerako bazkideen baldintza beretan jarri arte?

Ez, hitzartutakoaren eta 4. galderaren erantzunean kredituak kapitalizatzeari buruz azaltzen denaren arabera eta Konpainiaren egoera kontuan hartuz, beharrezkotzat jotzen ez delako.

4. Kasua bada, zer itun sinatu ditu Sodenak gainerako bazkideekin, eginiko ekarpenen desorekaren ondorioz?

Sodenak Parquenasari emango dion finantzaketa –2005eko urtarrilaren 31an sinatu zen–, gainerako bazkideek Sozietate honetarako finantzazko laguntza osagarririk egin nahi ez dutenez, data horretako akziodunen erabakiz jarritako baldintza jakin batzuk betetzeari mendekotuta dago; baldintza horien arabera, Sodenak, hala egokituz ero, beretzat har dezake kapital sozialaren gehiengoa eta administrazio-organoan dagokion ordezkaritza.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu